

2002-03-24  
**kioskoa****Agurtzane Ormaetxea****Ilegalizaziorako legea**

Alderdi Politikoen Lege Organikoa onartu du Espainiako Ministro Kontseiluak, ezker abertzalearen inguruko alderdi politikoak eta mugimenduak legez kanpo uzteko.

**La Razon**-ek legearen beharra azpimarratu zuen atzo editorialean, esanez, «legezko sisteman argi utzi behar direla gauzak, askatasunean murrizketak egin gabe eta salbuespen egoeretako arau berezietara jo gabe». **El Pais**-ek ez zuen zalantzarik izan «Batasuna ETak zuzendutako giza enpresako kide» dela esateko, eta «ilegitimoa dena legez kanpo» utzi behar dela gehitzeko.

**El Mundo**-ren arabera, «bi alderdi nagusiek» itundutako erabakia denez, «gizarteko herritarren gehien-go zabala» ados dago Batasuna legez kanpo uztearekin. Eta **El Diario Vasco-El Correo** ere bat etorri ziren ilegalizaziorako urratsarekin. «Herritarren botoa ez da legezko abala, horren babesa dutenak bortsarekin elkarkidetzatza politikoan ari daitezten».

Bestelako iritzia azaldu zuten **Gara**-k eta **Deia**-k. **Gara**-k ezbaian jarri zuen legea «demokratikoa» ote den. Euskal Herrian «gehiengo sozial eta politikoa» kontra dagoela esan zuen, eta kezkatuta azaldu zen balitekeelako legeak «bortizkeria indartzea». **Deia**-k, bestalde, *iraganaren* itzuleraz ohartarazi zuen: «Botereak atsegin ez dituen formazioak legez kanpo jartzea demokrazia aurreko garaietara atzera egitea da, alderdi politiko batek ideia batzuk ordezkatzen dituelako eta Konstituzioak pentsamendu eta adierazpen askatasuna bermatzen dituelako». Ildo horretan, «Francorekin bezala, ilegalizazioarekin ez da konponduko euskal gatazka», ondorioztatu zuen **Deia**-k.

**Egunkaria** 3.508. zenbakia

Ohorezko Lehendakaria: Martin Ugalde

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: Joan Mari Torrealdai

Kontseilari Ordezkarria: Iñaki Uribe

Zuzendaria: Martxelo Otamendi

Gerentea: Mikel Sorozabal

Publizitatea: Idoia Sanz

Egoitza Nagusia: Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel.: 943300222  
Erredakzio faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707

Webgunea: www.egunkaria.com

Posta elektronikoa: egunkaria@egunkaria.com

Publizitatea: publi@egunkaria.com

Batzorde Parekidea: 72564 E Lege Gordailua. SS 800/90 ISSN 1134-640X  
OJDK IKUSKATURIKO HEDAPENA**ORDEZKARITZAK** - Araba: San Antonio, 20-1 ezker. 01005 Gasteiz  
Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965Nafarroa: Irabxe Monasterioa, 45-13. esk. (Irrintzi dorrea) 31011 Iruñea  
Tel.: 948178073-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686Bizkaia: Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715  
Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa: Pelletier 35,  
64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511**balkoia****Martxelo Otamendi****Baliagarritasunaz**

**O**rioko zinegotzi sozialistaren hilketa eta Batasuna legez kanpo uzteko lege proiektua. Bi gertaera desberdin, konparaezinak, baina biak errealitate gordin baten adierazle, soka beraren bi muturrak. Horretaraino dago mugara eramanda euskal politika.

ETA oinezko zinegotziak hiltzen hasi zenetik ikaragarri gogortu dira borroka armatuaren ondorioak, eta herritarrengan sortzen duten egozera handitzen ari da hilketa batetik bestera.

Alderdiaren politika nagusian erabaki ahalmenik ia batere ez daukaten biktimak dira azkenaldian ETArenek, eta horrek gaur egun borroka armatua kaltegarria den iritzia duten herritar abertzaleen kopurua handitu egiten du etengabe. Horrek, ondorioz, helburu abertzaleetatik urruntzera eraman ditzake herritar horiek; gero eta handiagoa baita presioa, mediatikoa eta politikoa, herritar horienengan.

**Alternatiba politikoa landu**

Hori guztia, eta gehiago, hartu behar du kontuan borroka armatua praktikatzen duen erakunde politiko batek. Borroka armatua abertzaleen garapenerako eragozpena dela ari dira behin eta berriro salatzen alderdi politiko eta sindikatu abertzale nagusiak.

Zer egiteko prest daude, borroka armaturik gabe, alderdi politiko eta sindikatu abertzale nagusi horiek? Galde

**ETAREN AZKEN BIKTIMAK****Alderdien erabaki nagusietan ia batere ahalmenik ez daukaten oinezko zinegotziak dira****ALDERDIEN LEGE BERRIA****Batasuna eta ezker abertzalea legez kanpo uzteko helburua du egitasmoak**

dezake erakunde armatuak. Hor, eztabaidaren esparru horretan, bilatu behar zaio irtenbidea borroka armaturik gabeko jokaleku politiko demokratikoari.

Horrek izan beharko luke indar abertzaleen zeregin nagusia: borroka armatuari alternatiba politiko sendoa jartzea, aurrez aurre. Herri honen eskubideak bermatzeko era borroka armatua egitea dela dioenak, argi ikus dezan alderdi politiko, sindikatu eta gizarte erakunde abertzaleek tresna politiko sendoa aktibatu dutela, eskubide horiek onartu nahi ez dituztenak horretara behartzeko.

Zaila dela? Bai noski!! Ez da erraza izango oinezko zinegotzien aurka atentatu hilgarriak eginez.

**Batasunaren neurria**

Espaniako Alderdien Lege berria agindu eta egin dutenek ez dute irudimen ariketa handia egin behar izan legearen edukia nori egokitu erabakitzerakoan. Legearen atal guztiak, bata bestaren atzetik, Batasuna buruan egin dituzte.

Ez da PP-PSOE bikotearen saio hau ezker abertzalearen espresio politiko nagusia legez kanpo uzteko lehena. Felipe Gonzalez Moncloan zela, saiatu ziren epaitegien bidetik baina epailek, legea eskutan hartuta, ez zuten zirikiturik aurkitu artikulu bilduman. Baina hori ere barkatzen zaio Gonzalez.

Oraingo legeak Batasuna legez kanpo uzteko aukera sendo eta eztabaidaezinek eskaintzen ez duelako, adostu dute Espainiako bi alderdi politiko nagusiek legea aldatzea.

Batasuna legez kanpo utzita, herri honen sektore oso bat jarri nahi dute espainiarrek legez kanpo, haien aukera politikoa kriminalizatuz. Batasunaren bila doaz orain, baina beste alderdi abertzaleek ez lukete eroso sentitu beharko, Espainiako Konstituzioaren gainean legeak egiten duen aipamena bere burua independentziazalea adierazten duen edozein kriminalizatze atea baita.

Horrela egiten dira legeak Espainiako demokrazian. Aurrekari txarrak inor borroka armatuaren baliagarritasun ezaz konbentzitzeko.

**martintxo**